

*Eskerrak Jaunari aita Julen Urkiza
bezalako bizikide bihotz-zabala eman digulako.*

**Eutsi goiari, senideok,
eutsi, eta ez etsi!
Eutsi goiari!, hemen behean
nahiko lan badiagu eta oraintxe
geuron buruoi zutik,
zutik eutsi ezinik.**

**Eutsi goiari!
azkenekoak gaituk eta,
azkenekoak gaitun eta;
ez etsi, eta eutsi!
azkenetan gauden arren;
nahiz eta ia,
ia ia suntsitu garen.**

**Hainbat eta hainbat erasoren azpitik,
hainbat mende eta menderen gainetik
gaur arte hitzari,
hitzari hitz eutsi
eta ez ote zioagu azkenean
azkenera arte eutsiko?
noiz eta ezer geratzen ez zaionean
azkenetan den mundutxo honi
azkenak emateko?**

**hitzari hitz eutsiz
orain arte zutik iraun
eta ez ote aurrerantzean iraungo?
hitza jan eta
lau hankan jarri behar ote diagu,
herrestaka hasi behar ote orain?**

Noiz eta orain,
orain, guztia gogoratu behar denean,
orain ahaztu behar ote dinagu
Hitzaren hitz garela hitzunok
eta hitzari eutsi diogulako
eutsi digula zutik Hitzak,
Hitzak zutik?

zutik eta baturik:
bat, geuron barnean;
bat, geuron artean;
bat, den guztia baitan?

**Eutsi, maiteok, eutsi goiari,
goiari eutsi!
azkenera arte zutik,
azkenera arte hitzari eutsiko diotenek,
haiek, eta ez bestek, eman behar baitziotek
azkena, azken zorian dugun mundu zaharrari,
eta hastapena, datorkigun mundu berriari.**

Bai, munduarenak bezala,
agian gureak ere egin din,
hala zirudin,
azkenekoak gaitun
eta azkenetan gauden,
baina lehenengoak izan gaitezkeen,
ziur, eutsi beharrekoari bazionagu eusten.

Eutsi goiari, ene maiteñook!
eutsi eman zaigun hitzari!
hartu dugunari hitzez hitz eutsiz,
garenak izan gaitezen,
eta aurrekoengandik ikasia
ondorengoei hitzez hitz irakatsiz,
direnak izaten jakin dezaten,
Hitzaren hitz izaten!

**Eutsi, haurrideok,
 haurride maiteok!
 eutsi goiari, goiari eutsi,
 ez gero orain etsi!**
**Eutsi orain, garenak izanik, ginenari eta izanen garenari;
 eutsi orain oraingoari,
 orain beretik, lehengoari bezala gerokoari,
 orain eutsiz betikoari.**

**Eutsi betikoari,
 betikoak euts diezagun
 orain hemen eta gero han.**

Eutsi orain betikoari,
 betikoa den orainari,
 betikoa dugun orainari;
 eta bizi dezagun oraina,
 orain bizitzeko betikoa;
 orain beretik bizi ahal dezagun
 beti biziko dena,
 inoiz hilko ez dena.

**Bizi gaitezen zutik,
 baturik, eta ez zatikaturik,
 bildurik, eta ez sakabanaturik;**
 bizi bizia biziki, batzen gaituen hitza,
 biltzen gaituen hitza atxikiz,
 atxikiz hitza hitz;
 bizi, bizi-bizi, bizi hitza, hitz bizia,
 Hitza diagu eta,
 Hitza dinagu eta bizia,
 eta bizia, biderako argia,
 argirako bidea;
 bizia, biderako argia,
 argirako bidea;
 bizia, biderako argia,
 argirako bidea...

**Eutsi goiari, maiteok,
barruak esaten digunari utsiz!
eutsi goiari makurtuz burua,
bihotza jasoz:
burua makur, bihotzari begira,
eta bihotza gora, goiari josirik.**

**Eutsi barruari, maite maiteok,
goiari darionetik bihotza asez!
eutsi barruari zabalduz besoak,
eskuak hustuz,
eskuak maitasunez hustutzeak
betetzen ziguk eta gainezka barrena.**

**Eutsi goiari, barruari utsiz!
Eutsi barruari, goiari utsiz!**

**Eutsi goiari, barruari utsiz!
Eutsi barruari, goiari utsiz!**

**Eutsi goiari, barruari utsiz!
Eutsi barruari, goiari utsiz!**

**Eutsi goiari, barruari utsiz!
Eutsi barruari, goiari utsiz! a**

JosAnton Artze